

FUNTSEZKO JARDUERAK



Funtsezko jardueretaz hitz egiten badugu, lehentasun handieneko ekintzei egiten diogu erreferentzia, jarduera hauek beharrezkoak dira negozioak bere bidea behar bezala jarrai dezan. Hainbat jarduera bereizten dira, hauen artean kudeaketarekin edota eragiketekin zerikusia duten ekintzak daude. Hauen bidez, enpresaren balio-proposamena sortzen da, diru sarrerak eta bezeroekin harremanak hobetzen dira.

Hainbat jardueratan oinarrituko gara gure enpresa aurrera joan dadin. Lehenik eta behin, erabilitako olioaren lortzea izango da. Hiru hornitzaile izango ditugu.



Lehenengoa **familiak** izango dira. Hau kudeatzeko lehen pausoa herriko udaletxearekin hitz egitea izango da. Honen bidez herriko bizilagunen kudeatzaile bakoitzarekin kontaktuan jarriko gara, proposamen bat eginez. Komunitate bakoitzean tanke bat jartzea. Honek, bizilagunek erabilitako olio guztia botatzeko erabiliko da. Hilabetero gure enpresako zisterna-kamioiak tanke beteak ustuko dute.


Azkenik bizilagunei olioaren truke dirua emango zaie, komunitatearen gastuak ordaindu ahal izateko.



Bigarrenik **jatetxeak**. Funtzionamendua berdina izango da. Tanga bat izango dute eta sukaldatzeko erabiltzen duten olio hori botatu dute. Aldiz, gure zisterna-kamioiak astero pasako dira erabilitako olioaren bila. Izan ere, jatetxeetan olioaren erabilera handiagoa da, eta olio zikin gehiago eta azkarrago sortuko dute. Jatetxeei ere olio honen truke diru kantitate bat emango zaie.



Gure azken proposamen hau **frijituak** saltzen dituzten **enpresei** egingo diegu. Haien produktu guztietarako erabiltzen baitute olio. Hauei ere tanke bat emango diegu erabilitako olio betetzeko eta aurrekoaren antzera enpresako zisterna-kamioiak astero pasako dira olioaren bila.



Behin behar dugun olio zikin guztia hainbat urrats jarraitzen ditugu
olio hori biodieselean bihurtzeko:

1. OLIOAREN DESIDARTAZIOA

Ondorengo erreakzioak ondo emateko olioari ur guztia kentzen zaio, motel berotuz.

2. GANTZ AZIDO ASKEEN NEUTRALIZAZIOA

Sosa kaustikoa (NaOH) erabiliz, olioaren azidotasuna erregulatzen dugu.



3. TRANSESTERIFIKAZIOA

Metanola (CH_3OH) eta sosa kaustiko gehiago erabiliz "olioaren karbono kateak" "mozten" dira, haren errekuntza hobeto funtziona dezan.

4. BIODIESEL ETA GLIZEROL BANAKETA

Dekantazioaren bidez produktu nagusia eta subproduktua banatzen dira

5. BIODIESELAREN GARBIKETA

Lortutako produktua ur-destitaluaz garbitzen da, prozesuan zehar geratu zaizkion arrastoak kenduz.

6. BIODIESELAREN LEHORKETA ETA BILTEGIRAKETA

Biodiesela berriz deshidratatu eta azkenik biltegitratzen da, hirugarrenen enpresa hura jasotzera etorri arte.

Azken jarduera banaketa izango da. Gure enpresak biodiesela Repsol enpresari salduko lioke eta ondoren haiek haien gasolindegietan salduko lukete.

Repsol gure instalazioetara gerturatuko da eta biodiesela jasoko du.



Ondoren, Repsolek haien gasolindegietan beste erregaiekin batera salduko du.

